



MEDIANE

Europako hedabideak aniztasunaren inklusioari begira

EUROPAKO BATASUNAK ETA EUROPAKO KONTSEILUAK BATERA EGINIKO EKIMENA, 2013 - 2014

MEDIANEREN GAIKAKO TOPAKETAK

*Ikuspegi barneratzailerako bidea eduki
mediatikoan diseinuan eta ekoizpenean*

12. - 14. 2013ko IRAILA

AIETEKO JAUREGIA

Aiete pasealekua 65

20009 Donostia

Tel. - + 34 943 48 19 75

Fax - + 34 943 48 17 78

Email - casadelapaz@donostia.org

CMFE

COMMUNITY MEDIA FORUM EUROPE



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Funded
by the European Union
and the Council of Europe



EUROPEAN UNION

COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

Implemented
by the Council of Europe

*Ikuspegi barneratzailerako bidea eduki
mediatikoaren diseinuan eta ekoizpenean*

IZEN EMATEA **Espainia** – Izena emateko epea - **2013ko abuztuaren 20a**

PARTE-HARTZAILEEN KONPROMISOA **Parte-hartzaile bakoitzari hedabideetan emateko egindako txosten bat edo bi ekartzeko eskatuko zaio.** Txostenak parte-hartzaileak sortutakoak izango dira, eta, haren iritziz, horien ikuspegia anitza izango da, eduki mediatikoaren diseinuari eta ekoizpenari dagokionez.

Parte-hartzaile bakoitzak jakin behar du topaketan bikoteak osatuko direla eta konpromisoa hartzen duela jarduera mediatikoei buruzko Europako trukeak egitera:
www.coe.int/t/dq4/cultureheritage/culture/Mediane/exchanges_en.asp (ingelesez)

Azken topaketan (Kroazian edo Portugalen egingo dena), parte-hartzaileei eskatuko zaie trukeetan sortu duten txostena aurkezteko, trukean izandako esperientzien gaineko iritzi nagusiak partekatzeko eta gomendioak eta irizpideak adierazteko, eduki mediatikoaren arloan aniztasuna integratzeari buruzko MEDIANE Indizea sortzeari begira:
www.coe.int/t/dq4/cultureheritage/culture/Mediane/index_en.asp (ingelesez)

Laburbilduta, **parte-hartzaileek** lehen bi topaketetako batean parte hartzeko konpromisoa hartzen dutenean, honako konpromiso hauek ere hartuko dituzte:

- hedabideetan emateko sortutako **txostenak ekartzea;**
- bikote bat osatzea, eta, gutxienez, jarduera mediatikoei buruzko Europako truke batean parte hartzea; eta,
- **beste topaketa batean parte hartzea**, ziur aski Kroazian egingo dena 2014ko apirilean.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK Europako Batasunak eta Europako Kontseiluak batera eginiko MEDIANE ekimenak **aurretiaz ordaindutako txartel bana emango die Espainiatik kanpo bizi diren parte-hartzaileei** (jar zaitzete harremanetan Ellsworth Camillerirekin; posta elektronikoa: ellsworth.camilleri@coe.int)

Donostiatik kanpo bizi eta ostatua behar duten parte-hartzaileei 130 euroko dietak ordainduko zaizkie, hirian gaua igarotzeko (hoteleko faktura aurkeztu beharko dute), eta **parte-hartzaile bakoitzak antolatu beharko du bere ostatua** (aldez aurretik hala eskatuta, hotelen zerrenda banatuko zaie).

Hiritik kanpo bizi diren parte-hartzaileei bidaiaren gastuak itzuliko zaizkie (faktura aurkeztu beharko dute).

Dietak eta bidaiaren gastuak **banku transferentzia bidez itzuliko dira, topaketa amaitutakoan.** Itzulketa gutxienez topaketa amaitu eta 6 astera egingo da.

AURREKARIAK

Gaur egun, Europan oso gutxi ikusten diren pertsona gehiegi daude; izan ere, batzuk oraindik ikusezinak dira pantailetan. Edo, are okerragoa dena: talde horiek hedabideetan agertzen direnean, oso funtzio zehatzak betetzen dituzte, eta gai oso mugatuei lotuta ageri dira. Gauzak horrela, hainbat talde ia ikusezin diren neurrian, ahotsa ukatzen zaie eztabaida demokratikoan.

Erabiltzen dituzten iturrien bidez —hautatutako pertsonak eta hautatutako tratua—, hedabideek eragina dute gaur egungo eztabaiden programan (zertan pentsatzen da) eta publikoaren pertzepzioan (nola pentsatzen da). Hori dela-eta, Europako Kontseiluak benetan barneratzailea den informazioa hartzen du aintzat —pertsonen parte hartzeko aukera ematen diena lekuko gisa, egile gisa, produktore gisa...—; izan ere, informazio hori funtsezkoa da parte-hartze demokratikorako eta gizarte kohesiorako.

Horregatik, Europako Batasunak eta Europako Kontseiluak batera eginiko MEDIANE ekimenak —Europako hedabideak aniztasunaren integrazioari begira— erabaki du hedabideen gaitasunetan eta trebetasunetan arreta jartzea, gaur egungo europar gizartearen aniztasunari erreparatzeko eduki mediatikoen ekoizpenean eta diseinuan; batik bat, iritzi publikoa eratzten duten albisteetan.

MEDIANEK aniztasuna eta ez-bazterkeria hartu nahi ditu aintzat, estaldura mediatikoaren ikuspegi iraunkor gisa. Horri begira, oinarritzat hartuko ditu Europako Kontseiluaren organoek hedabideen pluraltasunari eta aniztasunaren adierazpenari buruz emandako hainbat gomendio, 2008-2010 urteen bitartean bazterkeriaren aurka lortutako emaitzak eta Europako Batasunaren eta Europako Kontseiluaren baterako MARS programa —Hedabideak arrazismoaren aurka kirolean—. Ikuspegi horren bidez, MEDIANEK forma benetan barneratzaileak sustatu nahi ditu eduki mediatikoaren diseinuan eta ekoizpenean.

Horretarako, MEDIANEK hedabideei eta haien profesionalen (kazetaritzako ikasleak eta irakasleak, kazetariak, hedabideetako zuzendariak, etab.) jarduera profesionalak partekatzerara konprometitzeko aukera ematen die, kazetaritzari, gestio editorialari eta ekoizpenari buruzko gaikako topaketetan. Esperientzien eta jardueren truke horretan oinarrituta, MEDIANEK hedabideei eta profesionalen laguntzea proposatzen du, eduki mediatikoaren diseinuan eta ekoizpenean benetan barneratzaileak diren moduak abian jartzeko ahaleginean.

Hedabideetako profesionalen aniztasuna integartzeko printzipioen gainean kontzientziatzea, baterako ekoizpen eta banaketa ekimenen bitartez, eduki mediatiko benetan barneratzailea ekoizteko modu berritzaileak sortzeko helburuarekin.

HELBURUAK

Hedabideetako profesionalen bikoteen sorrera bultzatzea, ikerketa, ekoizpen eta hedakuntza (datozen sei hilabeteak, aldi erdia) prozesu honetan parte har dezaten, hedabideetan (telebista, prentsa, irratia edo Internet) eman beharreko txosten profesionalak eta barneratzaileak batera egiteko.

Eduki mediatikoa barneratzailea izateko baldintzak eta irizpideak zehazten laguntzea, hedabideen ekoizpen prozesuetan aniztasuna integartzeko ahalmena bultzatze aldera.

Estaldura mediatiko barneratzailea emango duten hedabideetako profesionalen Europako sare bat sortzen laguntzea, eduki mediatikoa aberasteko eta, aldi berean, pertsona guztien parte-hartzea ziurtatzeko eztabaida publiko eta demokratikoetan.

EDUKIA

Hedabideen topaketak jarduera profesioaletan jarriko du arreta nagusia.

Parte-hartzaileek elkar ezagutzeko aukera izango dute; izan ere, "speed dating" edo hitzordu bizkorreko saioetan parte hartu, eta bikoteak osatuko dituzte Europako Batasuneko beste herrialde batzuetatik etorritako parte-hartzaileekin. Topaketan, bikote bakoitzak ideia bat eta egutegi zehatz bat finkatu beharko ditu, hedabideetara bideratu beharreko txosten barneratzaile bat sortzeko. Bikote bakoitza txosten hori aztertzen eta prestatzen hasiko da, eta ikuspegi desberdina emango du herrialde bakoitzean.

Topaketaren ondoren txosten hori egiteari begira, bikote bakoitzak berehala parte hartu beharko du MEDIANEren jarduera mediatikoei buruzko Europako trukean. Parte-hartzaile bakoitzak bere herrialdean lankidetzan jardungo du bere lankidearekin, 5 egun edo 4 gaueko egonaldian, gutxienez. Gero, Europako lankideak egingo du harrera, 5 egun edo 4 gaueko egonaldian, gutxienez. Truke horren amaieran — Europako Batasuneko bi herrialdetan igarotako bost eguneko bi egonaldiz osatuta—, parte-hartzaileek txostenak amaitu, eta argitaratu beharko dituzte, eta trukean bizi izandako esperientziaren laburpena eman beharko dute, sei hilabeteko epean (gehienez, 2014ko martxoan). Truke horiek babesteko asmoz, Europako Batasunaren eta Europako Kontseiluaren baterako MEDIANE programak txartel ordaindu bana eta 500 euroko kopuru bana emango die aurretik trukeko parte-hartzaileei.

Topaketa eta dagokion trukea amaitu ondoren, parte-hartzaileei txostena beren herrialdeetan zabaltzeko eskatuko zaie, beren hedabideetan edo hautatzen duten beste batean.

Ekoizpen jarduera zehatz batean oinarrituta, topaketak eta trukeek lagungarriak izan behar dute, hedabideetako profesionalak hobe uler dezaten zenbateraino den guztiontzat ona Europa mailako aliantzak egitea eta zer interesgarri den ikuspegi barneratzailea izatea, eduki mediatikoaren diseinuan eta produkzioan.

Amaitzeko, parte-hartzaileek ekoizpenari buruzko hedabideen azken Topaketan parte hartzeko aukera izango dute, Kroazian, 2014ko apirilean, edo, bestela, Europako bigarren Topaketan, Portugalen 2014ko udaberrian. Azken topaketa horretan, haien esperientziak partekatzeko eta MEDIANE Indizea sortzen laguntzeko aukera izango dute. Indize hori jarduteko eta auto-ikuskapenerako tresna bat da, hedabideetan aniztasuna integratzeko xedea duena.

EUROPAKO KONTSEILUKO BAZKIDEA

CMFE
COMMUNITY MEDIA FORUM EUROPE

Hedabide Komunitarioen Europako Foroak (CMFE, ingelesezko siglak), 2004. urtean sortutakoak, "hedabide komunitarioetako" hainbat kide elkartzen ditu, Europa mailan. Hedabide komunitarioak irabazi asmorik gabekoak dira, eta komunitate baten zerbitzura egoten dira. Horrelakoak izanik, nortasun zehatz bat dute, zerbitzu publikoaren sektoreko hedabide nazionalak eta hedabide komertzial pribatuak duten bezala. CMFE plataforma bat da, eta bertan biltzen dira sektore horretan diharduten sareak, federazio nazionalak eta proiektuak. Gaur-gaurkoz, CMFEK Europako 25 herrialdetako 107 kide ditu (horien artean, 26 Federazio nazionalak dira). Bazkideen artean daude, halaber, kide partikularrak eta Afrika, Asia nahiz Ipar Amerikako erakundeak.

**TOKIKO
ANTOLATZAILEAK**



Donostia / Espainia - PausuMedia irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, eta Behe Bidasoako eskualdean euskara erabiltzen duten hedabideak bultzatzeko helburuarekin sortu zen. 2001ean Pausu izenez sortu zen, eta lotura estua izan du irratia munduarekin. Antxeta Irratia sortu zuen,

Entzun Ikus elkartearen laguntzaz (Gure Irratiaren sortzailea, 1982an). Irrati komunitario gisa, arreta jarri izan du beti kultur aniztasunean, genero berdintasunean, arrazismoaren aurkako borrokan, homofobian eta intolerantzian. Urtean zehar, gai horiei buruzko saio asko langileek eta irratiko boluntarioek zuzentzen dituzte. 2012. urtean, hiru "komunikazio tailer" egin zituen, emakume etorkinen gaia ardatz hartuta. Egin ditu, halaber, elkartasun eta garapenerako lankidetzak proiektuak hainbat herrialdetan, hala nola Ekuador, Txile eta Haiti. Gaur egun, PausuMedia proiektu bat gidatzen du maputxeak (Txile eta Argentina) eta haien hizkuntza berreskuratzeko (*Mapudungun* - "Lurraren hizketaldia" - UNESCOk galtzeko arriskuan dagoen hizkuntza gisa katalogatu du).

**PARTE-
HARTZAILEEN
PROFILA**

Topaketan, gehienez, **40 parte-hartzaile** onartuko dira (35 kanpokoak eta 5 bertakoak); hedabide publiko, komertzial edo komunitario eta minoritarioetan diharduten 34 profesional, 4 parte-hartzaile nazional eta Europako Kontseiluaren MEDIANE ekimenari elkartutako eta horren taldeko 6 barne.

Donostiako MEDIANE Topaketari begira, lehentasuna emango zaie Europako Batasunaren hegoaldeko estatuetatik etorritako parte-hartzaileei; hau da: Bulgaria, Kroazia, Zipre, Eslovenia, Espainia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Italia, Malta, Portugal eta Errumania.

PRODUKTUAK

Gehienez, 17 bikotek eginiko 17 txosten gurutzatuak egingo dira, eta 37 euskarri mediatikoetan zabalduko dira.

Eduki mediatikoaren diseinuan eta produkzioan ikuspegi barneratzailea txertatzeko ildoan, gomendioen eta irizpideen multzo bat egingo da, Aniztasunaren Integrazioari buruzko Hedabideen Indizea sortze aldera.

**AURREIKUSITAK
O EMAITZAK
ETA EMAITZA
ERREALAK**

Europako hedabideetako profesionalen arteko elkarrizketa eta trukea etengabeak izatea, eduki mediatikoaren produkzioan eta diseinuan ikuspegi benetan barneratzailea martxan jartzeari begira.

Profesionalen jarduera mediatikoak aberastea, kultur artekotasunari, aniztasunaren adierazpenari eta bazterkeriarik ezari buruzko kontzientzia hartzea areagotzearen ondorio gisa eta esperientzietatik eskuratutako ikaskuntzan oinarrituta.

Zubiak eraikitzea hainbat euskarri mediatikoren artean, hala nola hedabide konbentzionalak, hedabide etnikoak eta aniztasunaren hedabideak, eta hedabide komunitarioak.

HIZKUNTZAK

Frantsesa eta ingelesa - Aldi bereko itzulpena izango da sarrerako saio guztietan.

BEHIN-BEHINEKO 1. EGUNA
GAI ZERRENDA

- 13:00 *Parte-hartzaileak iritsiko dira*
- 14:30 **Sarrerako saioa**
- 15:15 **Tailer praktikoak** hedabideen ekoizpenean aniztasuna integratzeari buruz - Jarduera eta ekimen mediatikoen, emaitzen eta ondorioen ikuspegi globala, parte-hartzaileek hedabideetan emateko prestatutako txostenen adibideetan oinarrituta.
Atsedena dia lan taldeko saioan sartuta dago
- 17:30 **Tailerretako ondorioak**
Gau librea

2. EGUNA

- 9:30 **Sarrera**
- 10:00 **Tailer praktikoak** eduki mediatikoak sortzeko hedabideetan aniztasunaren integrazioa martxan jartzeko eta hobetzeko irizpideei buruz.
Atsedena dia lan taldeko saioan sartuta dago
- 12:30 **MEDIANEri buruzko sarrera:** MEDIANEren jarduera mediatikoei buruzko Europako trukeak.
- 13h00 *Bazkaria*
- 14:30 **"Speed dating" saioak,** hedabideetako profesionalen bikoteak sortzeko. Helburua da MEDIANEko jarduerak egitea; horren barruan sartzen dira jarduera mediatikoen ekoizpena eta Europako trukeak, ikertzaileentzako denbora eta lehenengo proiektuak.
Atsedena dia saioan egingo da
- 16:00 **Lan saioa bikoteka,** lankidetzako proposamenaren proiektua prestatzeko eta definitzeko, planifikatutako trukeei begira.
- 18:00 Amaiera
- 19:30 *Afaria*

3. EGUNA

- 9:30 **Sarrera:** Aniztasuna Integratzeari buruzko Hedabideen Indizea (MIDI, ingelesezko siglak), eta topaketak eta trukeek horren sorrerarako egin ditzaketen ekarpenak.
- 10:00 **Trukeetarako lankidetzaren proposamenei buruzko tailerrak** - Talde bakoitzaren barruan, bikoteei eskatuko zaie beren lankidetzaren proposamena aurkezteko eta parte-hartzaileekin eztabaidatzeko. Lan talde bakoitzak bere proposamena aurkeztu beharko du ondorioen saioan. Horren helburua izango da hedabideetan aniztasuna integratzeko proposamena aberasteko eta hobetzeko bikote bakoitzak emandako ildo nagusiak laburtzea.
Atsedenaaldia lan taldeko saioan sartuta dago
- 11:30 **Sarean izena emateko saioa**, jarduera mediatikoen Europako trukeak eskatzeko.
- 12:00 **Ondorioak** eta hurrengo neurriak
- 12:30 *Parte-hartzaileak joango dira*

HEDEBIDEAK ETA ANIZTASUNAREN INTEGRAZIOA - ZEIN DA ARAZOA?

Gaur egun, Europan ikusten ez diren pertsona gehiegi daude; izan ere, batzuk ikusezinak dira oraindik pantailatan. Edo, are okerragoa dena: talde horiek hedabideetan agertzen direnean, oso funtzio zehatzak betetzen dituzte, eta gai oso mugatuei lotuta ageri dira. Gauzak horrela, hainbat talde ia ikusezin diren neurrian, ahotsa ukatzen zaie eztabaida demokratikoan. Horregatik, Europako Batasunak eta Europako Kontseiluak batera eginiko MEDIANE ekimenak - Europako hedabideak aniztasunaren integrazioari begira— erabaki du hedabideen gaitasunetan eta trebetasunetan arreta jartzea, gaur egungo europar gizartearen aniztasunari erreparatzeko eduki mediatikoen ekoizpenean eta diseinuan; batik bat, iritzi publikoa eratzen duten albisteetan. MEDIANEK aniztasuna eta ez-bazterkeria hartu nahi ditu aintzat, estaldura mediatikoaren ikuspegi iraunkor gisa. Horri begira, oinarritzat hartuko ditu Europako Kontseiluaren organoek hedabideen pluraltasunari eta aniztasunaren adierazpenari buruz emandako hainbat gomendio, 2008-2010 urteen bitartean bazterkeriaren aurka lortutako emaitzak eta Europako Batasunaren eta Europako Kontseiluaren baterako MARS programa —Hedabideak arrazismoaren aurka kirolean—. Ikuspegi horren bidez, MEDIANEK forma benetan barneratzaileak sustatu nahi ditu, eduki mediatikoaren diseinuan eta produkzioan. Horretarako, MEDIANEK hedabideei eta haien profesionali (kazetaritzako ikasleak eta irakasleak, kazetariak, hedabideetako zuzendariak, etab) jarduera profesionalak partekatzea konprometitzeko aukera ematen die, bai gaikako edo Europako topaketetan bai MEDIANEko Europako trukeen bidez izandako topaketa pertsonaletan. Esperientzien trukeaz harago, gonbidapen bat egingo zaie profesional horiei Aniztasunaren Integrazioari buruzko Hedabideen Indizea sortzeko. Indize hori erabilgarria izango da hedabide eta profesionalentzat, eta azkenekoei gaikako edukien ekoizpenean eta diseinuan beren gaitasuna aztertzeko aukera emango die. Tresna horren xedea izango da, halaber, eduki mediatikoa diseinatzean eta sortzean modu barneratzaileak eta kultur artekoak sartzearen aldeko erabakiak bultzatzea. Erabiltzen dituzten iturrien bidez —hautatutako pertsonak eta hautatutako tratua—, hedabideek eragina dute gaur egungo eztabaiden programan (zertan pentsatzen da) eta publikoaren pertzepzioan (nola pentsatzen da). Hori dela-eta, Europako Kontseiluak benetan barneratzaile den informazioa hartzen du aintzat —pertsonen parte hartzeko aukera ematen diena lekuko gisa, egile gisa, produktore gisa...—; izan ere, informazio hori funtsezkoa da parte-hartze demokratikorako eta gizarte kohesiorako.

Arazoari buruzko zenbait zifra

Europan, emakumeak albisteen heren batean baino ez dira agertzen, Europako biztanleen erdia baino gehiago diren arren (GMMP, 2010)

Europako Batasuneko biztanleen % 10 etorkinak dira (EUROSTAT, 2011). Albisteen aktore nagusien artean, ordea, ia ez dira % 5era iristen (Ter Wal, 2004)

Lesbiana, gay, bisexual eta transexualak diren pertsonak Erresuma Batuko biztanleen % 6 inguru dira, baina pantailako aktoreen % 1 eskasa osatzen dute.

Erresuma Batuan, biztanleen % 20k ahalmen urria dute, baina hango telebistan % 1 baino gutxiago agertzen dira (CDN 2009-10 Progress Report)

Belgikan (CSA, 2012), ahalmen urriko pertsonen bigarren mailako paperetan agertzen jarraitzen dute, eta soilik urritasunari lotutako gaietan.

Belgikan, emakumeak eta gutxiengo etnikoak nagusiki agertzen dira bigarren mailako paperetan edo informazioa osatzeko estra gisa (CSA 2012, AJPB 2011); gutxitan ageri dira adituen edo bozeramaileen paperean.

Frantzian (CSA, 2008), telebistako albiste guztietako aktoreen % 19 gutxiengo etnikoetako kideak dira; haatik, hori soilik kirolei eta musikari buruzko albisteetan hautematen da, eta oso bakanetan politika, gizarte eta ekonomiako berrietan: hauek heren bat baino gehiago dira, eta besteak ez dira % 10era iristen.

Europan, oro har, (Ter Wal, 2004) gutxiengo horiek politika albisteetako aktoreen % 5 baino gutxiago dira, eta emakumeak ez dira % 5era iristen, ekonomiari eta zientziari buruzko albisteen aktoreen artean.

...zerbait gaineratzerik?